

ARGITALPEN-OHARRA

Arantzazuko frantziskotarren bertako 500 urteak betetzean (1501-2001), *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean* (Arantzazu, 2001) eman genuen argitara. Orduan esandakoaren arabera, argitalpena zabala izanik ere, bildutako lanen laburpen herritarra zen, gehiago gabe. Horregatik, han bertan adierazi genuen argitalpen landuago baten prestaketan genbiltzala, kasu honetan ikastun eta iker-tzaileentzat izango zena. Bigarren argitalpen hau eskaintzera gatoz, bada, orain.

Arantzazu: ikerlan eta saiakerak (XX. mendeko historiaz) eman diogu izenburua liburu honi. Bai, *ikerlanak* eta *saiakerak*, elkarren ondoan eta elkarren osagari. Aurreko liburu hura herritar nornahirentzat idatzi genuen bezala, beste oraingo hau batez ere ikastun eta ikertzaileak gogoan ditugula paratu dugu; baina hau bera ere, esan beharra dago, jendarte zabala da.

Aurrena, historialariak ditugu gogoan, kristau Santutegien historiaz, Ordena Erlijiosoan nahiz Euskal Herriko historia erlijiosoaz arduraturik dabiltzanak. Nahikoa mundu ezberdinak, beraz. Euskal Herriko Unibertsitate eta Ikertegietan dabiltzanak dira batzuk, baina hemendik kanpo mundu zabalean fenomeno erlijiosoen historia aztertzen dutenak daude, gainera: Santutegi kristau edo ez-kristauak iker-gaitzat dituztenak, edo gune erlijioso hauetako Ordena Erlijiosoen historiaz ari direnak.

Bestalde, esan beharrik ez dago, lurraldez eta kulturaz ere Arantzazu Euskal Herrian lekuturik dago, eta inguru geografiko eta sozial horretan bizi izan du historia Santutegiak, betiere bere begira-puntu eta bizimolde erlijiosotik ziharduela. Santutegiaren eta euskal gizartearen arteko *bartu eta emanak* hertsia eta iraunkorrak izan dira. Hortaz, horren berri emanez, liburu honetan ekarpen jakin bat egin nahi izan dugu euskal historia erlijioso eta orokorraren alorrean.

Aipatutako lehenengo liburuan eman zena, hemen zabalago, sakonago agiriz-tatuago emango da, bere oin-ohar eta bibliografiarekin: honelakoetan, benetako ikerlanak ditugu aurrean. Testu-masa gutxienez bikoiztu egin zaigu handik hona, irudiak ia desagertu diren bitartean. Oinarritzko informazio orokorrenak lehenengo liburu hartan jasota geratu ziren, baina hango baieztapenen frogak hemen daude jasota, beren zehaztasun eta argibideekin.

Edozein eratan, XX. mendeko lekuko zuzenek ere hitz egingo digute liburuan, kasu horretan agiri idatziaren lekua hartuz. Testigantza pertsonal horiek eskueran genituenez, ez ditugu galdu nahi izan, eta beren berariazko ahotsez mintzarazi ditugu, bertatik bertarako ezagumendu eta bizipenak bestelako kontaera bortxatuegi eta akademikoegi batek sobera zimel ez zitzaizkien. Ikerlan-saiakeretako kontaren ezberdintasunak agerian daude liburuan, eta, noski, jabetuko da horretaz irakurlea idazlanak irakurri ahala.

Bestalde, edukiaren aldetik ere oharren bat egin beharra dago hemen. 2001ean kaleratu genuen aipatutako liburuen eta beste berri eta zabalago honen artean, badago edukietan ere alderik franko, eta ohartaraztekoa da hori.

Lehen liburu hartako hainbat idazlanek bere lan bikia du hemen: oraingoan betiere aberatsagoa, baina lehendik emandako azalpen laburraren kide-kidekoa den testu zabalagoa. Ugariak dira honelako kasuak, eta denak aipatuko ez badi-tugu ere, ongi etorriko da kasuren batzuk adibidetzat aipatzea: Arantzazu eta Oñati (J. Elortza), Basilika berriko eraikuntza (M. Pagola), Probintzia Erlijiosoa (A. Uribe), Fraideen otoitza (J. L. Elortza), Lana (J. Zubieta), Irakaskuntza (F. Irizar, J. Unanue, I. Etxebeste), Sermolaritza (J. Intxausti, J. M. Lete), Hedabideak (J. Beloki), eta besterik. Honelakoetan, esan bezala, aurreko liburuan baino lan osatua-go bat aurkitu ahal izango du hemengo orrialdeetan irakurleak. Eta ikastun eta ikertzaileak, berriz, informazioa nondik norako iturrietatik jaso den ere jakin ahal izango du.

Baina liburu laburtu hartako aztergai guztiak ez daude hemen, edo beste azalpen-molderen bat dute, gauzak errepikatzen ibili nahi ez guelako, edo orain artikuluetan beste gisa batean banatuta ageri direlako. Gogora Liburutegiari zegokion lan aski zabala (K. Zubizarreta), edo artelanei buruzkoak (E. Kortadi, I. Monforte, J. Ulazia), Kofradia berriari edo erromesaldiei eskainiak (J. Intxausti), Fraitearteaz emandakoak (J. Intxausti, N. Segurola), Limosnarekikoa (F. Altube) eta abar. Batzuetan, iradoki dugun bezala, aztergairen bat artikulua berri luzeetara pasatu da; horrela gertatu da, adibidez, limosnarena ekonomiari dagokionean jasotzean (J. Intxausti), edo Erromesaldiez aski luze erromesaren otoitzaz diharduen lanean (T. Larrañaga).

Aurreko liburuan ez zeuden eta erabat oinarri berrietatik idatzitako idazlanak ere badaude liburu honetan: Arantzazuko izaera santutegitarrari dagokiona (J. Intxausti), erromesaren oroitzaz ari dena (T. Larrañaga), L. Villasante eta B. Gandiaga idazleen soslaia biografikoak (J. L. Zurutuza, P. Zabala).

Gaien garrantziengatik, edota bildurik zeuden langaiengatik, egingarriak ere gerta zitezkeen oraingoz behintzat agertuko ez diren lan luze batzuk (Fraidearte, Kofradia berria, Erromesaldien geografia, etab., adibidez), baina ez dugu liburu-lana gehiegi atzeratu nahi izan, balizko hobearen sasietan tratatuta.

*** *** ***

Liburu honen argitalpena Arantzazuko V. Mendeurreneko argitalpenen artean egiten da; ale-kopuru mugatuko argitaraldia da, bildutako langaien albistea Liburutegi, Ikertegi eta adituen artean zabaltzeko asmoarekin egina.

Egindako lanak zor asko du, Santutegitik bertatik hasita. Arantzazuko fraideen lankidetzak eskuzabalak ahalbideratu du lana, lehenik eta behin: eskerrak, Egitasmoan genbiltzanoi hitzez eta egitez eskaini dizkiguten harrera eta lankidetzagatik.

Moldiztegirako eginkizunetan, Paulo Agirrebaltzategi izan dut (berriz ere!) laguntzailerik hurbilena; bera saiatu da argitalpen honek atzerapen gaiztorik izan ez zezan. Duen trebezia informatikoak ez du gutxi lagundu liburuak izaera egoki eta erabilgarria izan zezan.

K. A. Euskal Fundazioak lan honetan genbiltzanoi eman dizkigun erraztasun eta laguntzak erabakigarriak gertatu dira, originala sortzeko. Eskerrak, bada,

Fundazioko Lehendakaria den Juan Zelaia Letamendi jaunari, Mendeurreneko zeregin honetan eman duen babesagatik.

Bistan da: Mendeurrenaren arduradunek Egitasmoa beren eskuetan hartu ez balute, liburu hau ez zen sekula kaleratuko. Hortaz, Santutegiko Nagusiei (J. I. Larrera hasieran, eta T. Zuriarrain ondoren), Artxibo-Liburuzainei (K. Zubizarreta, J. Etxeberria) eta Mendeurreneko Zuzendari Anai Iñaki Beristain-i nire esker on beroa adierazi nahi diet, lan egiteko aukera ezin erosoagoa eman didatelako.

Joseba Intxausti

NOTA EDITORIAL

Al publicarse la obra *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean / Un Santuario vasco en el siglo XX* (Arantzazu, 2001), dentro del programa conmemorativo del V Centenario de la presencia franciscana en el Santuario de Arantzazu (Gipuzkoa), se anunció ya la futura edición de otra obra más extensa que debería intitularse *Arantzazu. Investigaciones y Ensayos sobre su historia en el siglo XX*. Con la presente publicación cumplimos aquella promesa.

El carácter de la obra precedente quiso ser divulgativo, sin renunciar, por ello, a ofrecer noticias que eran, a veces, verdadera novedad y fruto de investigaciones iniciadas ya en aquellas fechas con vistas a ésta otra publicación que ve la luz ahora.

Como complemento a lo ya dado a luz entonces, estas *Investigaciones y Ensayos* aspiran a prestar un servicio útil a los estudiosos de la historia de los Santuarios cristianos, de las Ordenes Religiosas y de la historia religiosa del País Vasco, dado que son cada vez más —también entre nosotros— los que atienden a este fenómeno de la religiosidad popular e institucional vivida en los Santuarios.

El renovado interés investigador de Universidades y Centros Especializados se manifiesta con vigor en el mundo académico de diversos países (EE.UU., Inglaterra, Alemania, Francia, Italia, etc.), con aportaciones científicas de creciente interés en monografías y nuevas síntesis, publicaciones seriadas, Congresos y Encuentros, etc.

Numerosos historiadores actuales están abordando hoy el pasado del mundo religioso con nuevas perspectivas de estudio y metodologías innovadoras. Estas nuevas aportaciones recientes presentan, sin duda, un valor añadido del que en buena parte carecíamos en décadas precedentes, ya que miran la historia de las iglesias y movimientos religiosos desde una “secularidad” hoy ya consagrada en las ciencias históricas vigentes.

El presente volumen aborda un cierto “modelo” de lo que han sido en el Occidente cristiano y católico los Santuarios cristianos a lo largo del siglo XX, ya que se ha vivido también en ellos una doble experiencia histórica —seguramente irrepetible—: la del Concilio Vaticano II, y la de la secularización y/o la afirmación generalizada de la increencia en un medio social tradicionalmente religioso.

El País Vasco ha formado parte de ese proceso, y el Santuario de Arantzazu se ha visto implicado en ello.

Este Santuario ha sido regentado por una Orden Religiosa, la de los Hermanos Menores franciscanos (ofm), ocupando, además, en el seno de su Provincia Religiosa un lugar señalado, como punto de captación y formación de vocaciones (canalización de parte de las aspiraciones de la religiosidad popular; sistema de reproducción institucional) y como atalaya de proyección social (religioso-asociativa, mediática, cultural, etc.). Esta vertiente religioso-institucional no es nada desdeñable, y permite estudiar en el Santuario aspectos como el de la inculturación de la Orden en un país de carácter singular.

Las páginas que siguen se benefician de un doble valor: el de la *investigación* y el del *testimonio*. Bastantes de los estudios reunidos en este volumen son trabajos de investigación que tratan de desvelar documentadamente los procesos de continuidad y cambio que se han vivido en el Santuario a lo largo del siglo XX (en la oración, los estudios, la economía, el trabajo, la peregrinación, etc.). Creemos que, en el contexto santuarial en que nos situamos en esta obra, estas investigaciones pueden ofrecer horizontes y datos satisfactoriamente utilizables también en otros casos santuariales de Europa.

Aun a riesgo de que se nos filtrara una cierta subjetividad, al tiempo que a los investigadores se ha querido también acudir a testigos — aún vivos entre nosotros— para que nos hablaran de su vivencia y conocimiento del pasado más próximo. Sus aportaciones tienen, sin duda, un valor de otro carácter, porque la temida “subjetividad” —temida de historiadores y lectores no partisanos— es en este caso también realidad objetiva, participativa de la realidad social e histórica de la que el testigo ha formado parte.

Así, pues, la lección directa del texto producido y la lectura prevenida del entrelineado se completarán y enriquecerán mutuamente, ofreciendo la panorámica socio-temporal de un Santuario que, en su forma conocida, ha de vivir en un porvenir inmediato cambios sustanciales.

Ante esta última previsión inevitable, hemos querido que las generaciones futuras dispusieran en estas páginas de los elementos precisos para iniciarse más fácilmente en el conocimiento de lo que Arantzazu ha significado en su relativa complejidad, ya que, como tantos otros, al mismo tiempo ha sido lugar religioso, construcción física, pueblo romero, comunidad social, propósito cultural.

Joseba Intxausti